



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

19 | 2016
Numéro XIX

Euskal Herria : Ethnosa eta Nazioa

Jokin Apalategi



Édition électronique

URL : <https://journals.openedition.org/lapurdum/3062>

DOI : 10.4000/lapurdum.3062

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 janvier 2016

Pagination : 29-43

ISBN : 978-2-95534-134-6

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Jokin Apalategi, «Euskal Herria : Ethnosa eta Nazioa», *Lapurdum* [Ligne], 19 | 2016, Sarean emana---
an 01 janvier 2021, kotsultatu 03 septembre 2021. URL: <http://journals.openedition.org/lapurdum/3062> ; DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3062>

Creative Commons - Attribution - Pas d'Utilisation Commerciale - Pas de Modification 4.0 International
- CC BY-NC-ND 4.0

Euskal Herria: Ethnosa eta Nazioa

Jokin APALATEGI
UPV/EHU

I. Sarrera

Xarles Bidegaini eskainiko zaion Lapurdum aldizkariaren zenbakia prestatzen ari zirela eta, partaide izan nahi nuen galdetu zidatenean, bat-batean baiezkoa eman nien. Izan ere, Xarles ezagun zahar preziatu horietarikoa dugu. Haren ikerketa ibilbidea laburbilduz honela izendatuko nuke: lexikologoa, dialektologoa, ethnolinguista eta geolinguista aldi berean. Euskal kulturaren alorrean langile prorrokaturia eta fina. Hau horrela ezarririk, nire buruari galdezka hasi nintzaionean, zertaz idatziko nuen harekin doana ahal bada areago argitzeko, beste behin ere haren ibilbidean pentsatuz erantzuna aurkitu nuen. Hasteko, euskal toponimia izana duela ikerketa ardurako zutabea gogorazi nahi dut. Eta toponimiak, lurralde jakin batean jendetza batek luzaz bizimodua egitean sortu duen hizkuntza eta kultura, hots, mundu ikuskera fosilizatua agertzen duenez, herri horren ethnos aldiak murgiltzera inbitatzen gaitu zuzen-zuzen. Toponimia ez da orduan jakintza doi bat. Linguistikari bakarrik atxikitzen zaio artez. Baina historia eta geografia zerbitza ditzazke ere. Tokien izenak, hizkuntza ahantzi edo deskontsideratuen lekuko direnak, memoria kolektiboan bakarrik esistituz ahoz-ahoz transmititzen direnak, ikustarazten eta iraunarazten saiatzen da toponimia.

Aro garaikideko toponimia ikerketa lehenak Britaina Handian (Richard Coates, Margaret Gelling, Oliver Padel, Albert Hugh Smith, Isaac Taylor, eta William J. Watsonek), Ipar Amerikan (George R. Stewart, eta Mark Monmonierrek) eta Frantzia (Auguste Longnon, Albert Dauzat, Marcel Baudot, Charles Rostaing, eta Ernest Nègrek) egin zituzten XIXgarren mendearen bigarren zatian abiatuz eta XXgarrenean jarraituz. Hastapenean, hiztegi topografikoak egitera mugatu ziren. Hiztegi haiek hizkuntzalariei toki izenen forma zaharrak ezagutzen lagundu zieten. Ondotik toponimiak toki izenen etimologia landu izan du. Kokaleku hau onartuz ikerketan murgiltzeak europar-mendebaldeko toponimiari sekuentzia bakarrek bilakaera ezarri izan dio. Eta horrela europar toponimoetan oinarri indo-europearra edo aurre-zeltikoa azpimarratu ziren. Jarraian ere, erromatar Inperioaren ondorioz zabaldu zen latindar hizkuntza eta kulturaren eraginak toponimian utzitako lekukoak kartografiatzen eta erroldatzen lan anitz egin da. Baita europar kolonizazioak munduan zehar eramandako orotaz ere. Baina

aurre-indo-europearretaz ez da interesik egon orokorrean. Eta hain zuzen, ikerketa fokatzetik kanpo utzitako alor horretan aurkitzen da euskal toponimiaren erdigunea. Horrela denbora joango da ikerlariak euskal toponimiaz interesatzen hasterako. Eta horrekin euskal ethnosaren esistentzia eta iraupena agertzen eta zehazten joango dira hogeigarren mende osoan. Aurrez, hala ere, palontologiak, antropologiak eta historiak, iker gaiak funtsezko ekarpenak eginaz, Euskal Herriaren lurraldeaz, jendetzaz eta hizkuntza-kulturaz lehen mapa zirriborrotua ziguten.

XX. mendean gero nazioarteko harremanen hazkunde esponenzialak, eta toponimiak mundu mailan lortutako geroz eta garrantzi handiagoak, 1959an, ONU, izen geografikoentzat Nazio Batuen adituen Taldea (GENUNG) abian jartzera eraman zuen. Eta talde horrek Estatu bakoitzak autoritate toponimiko nazionala eduki beharra ekarri zuen. Baina, euskaldunok « ezagutza nazional » partikularrik gabeak izatean, toponimiazko langintza hori itzalean egin behar izan dugu, gero pixkanaka erakundetze politiko propioa lortu ahala argira igarotzeko.

2. Euskal Ethnosa

1934gn urtean « Euskalerriko lehen-gizona » lehen aldiz argitara eman zuen J.M. Barandiaranek, liburuaren sarrera atalean hau idazten zuen : « Euskal Herria, etxe, senide edo herri talde baten tankeran ageri zaiku. Talde horretan, gizaki berezi batzuk sortzen dira edo eta beste lurraldeetan baino ugariago agertzen dira- aurpegiz, buruz eta odolez, batez ere, nabari direnak- arteko senak sorteraziak : talde hori beraz azkazi bat dugu. Azkazia ez ezik, ethnia ere bai. Baditu Euskal herriak bere lur eta eskualdeak ; bere bizikerak – abeltzaintza, arrantza, nekazaritza, olagintza, e.a - ; bere elkargoak – etxe, hauzo, herri- ; bere ohikunde eta legeak ; bere hizkuntza eta esaerak ; gizabidean bere heziera darabilan eraen eta egitamua » (J.M. Barandiaran, 1934, 9-10) Geroztik ezagutza hori aberasten eta zehazten joan bada ere, oro har, osoki baliokoa da gure egunetan lehen adierazpen hau.

2.1. Lurraldea eta jendetza

Jakina da, hain aspalditik esistentzia duen Euskal Ethnosak lurralde okupazio berbera ez duela beti gorde. Hala ere, historiaurreko diren euskalguneak miatzen goatzan hainean tokiko jendetzaren jarraipena nabarmena izan dela adierazten digute. Burdin aroan agertuko den jende indo-europearra izango da aldaketetan ondorio garrantzitsuenak eragingo dituen lehen migrazio etnikoa. Baina horiek, badirudi Zeltak zirela hasieran, eta penintsularako bidean igaro egingo dira Euskal Herritik. Eta ukipenak iraungo duen hainbatean guztia ez da negatiboa izango, aitzitik horiei esker teknika berriak, burdinaren metalurgian, abereekin egindako garraioan, baita laborantza arloan jokabide eta kultura berriak, eta finean abelgorri eta zaldien hazkuntzan aurrerapenak geldituko baitzaizkigu. Berezi euskararen atxiki diren hitz zeltikoak hala erakusten digute. Iberoak eta/edo Berebereak ere eraginik izan zuten. Bestalde, arkeologiaren ezagutzak aurrera doatzen hainbatean geroz eta argiago dago Autrigoiak, Beroiak, Karistioak, Barduloak eta Baskoiak, baita Akitandarrak eta Wisigothoak ere propioki iberikoa den zibilizaziotik kanpokoak zirela. (Allières, J., 1977, 15) Euskal lurraldeak eta bertako bizilagunek, bada, lehen Paleolitos Haroaz gero ez dute aldaketa haundirik ukaiten. (Barandiaran, J.M., 1934, 107)

Baina, Jesukristo baino 200 urtez lehenago Euskal Herrian sartu zen erromatarren

inperioak bai hasi zuela, hemen, bere eragintza. Iraupen luzez zelaietako euskaldunekin harreman anitz izan zuten. Seirehun urtez, euren agintearen eta hezieraren indarrez, arestian aipatu ditugun herri gehienak menperatu zituzten. Ordutik hasten dira hemen, dirudienez, herri lurren banatzea eta bakarjabetzea : fundi izeneko lurraldeak jauntxoek eskuetan eta langile dohakabe anitz hauen menpean. Etxeak eta lurak herritarenak baitziren lehen ; aurrerantzean, ordea, lurak eta etxeak bakar-lagunen eskuetarantz igaroko dira. Tegula edo teila – etxe estaliaren gaia- etxearen lekuko zena eta bakarjabetzaren ezaugarria ezarri zuten. (Barandiaren, J.M.,1934, 108)

2.2. Hizkuntza eta kultura

Etnia baten funtsa haren jendeak darabilen hizkuntzan datza. Atal hau sakontzeko hiru autoreren lanak gomendatuko ditut : a) L.Mitxelena, *Textos arcaicos vascos ; Sobre el pasado de la lengua vasca ; Fonética histórica vasca ; La lengua vasca ; eta L'Euskaro-caucasique*, in *Le Langage, Encyclopedie de la Pléiade*. b) R.Lafon, *La lengua vasca*, *Enciclopedia Lingüística Hispánica ; La langue basque, Bulletin du Musée basque ; c) J.Allères, Manuel pratique de basque ; Les basques*. Euskal etniaren hizkuntza ezagutzekoan, euskararen azarnak (tresnen izenak) ditugu lehen lekukoak ; ondoren, euskara, indoeuoparren hizkuntzaz ikutua ageriko zaigu; batez ere – azken aldean –latinak zerbait kutsatu zuenean. Ahantzi gabe ere, erromatarren inperioaren amaieran Euskal Herritik Bandaloak, Sueboak, Wisigotoak(Rouche, M., 1979), eta Frankoak inbasio haundien ekaitza eragin zigutela. Batzuek besteek baino inzidentzia haundiagoarekin, noski. Eta VIIIgn mendean musulman armada Euskal Herrira ailegatzearekin bat Iruñako euskaldunak erresistentzia autonomo zentru bat altxatzen dute. Horren ondorio IXgn mendean Iñigo Aristak lehen erreinu euskalduna kudeatuko duelarik, euskal etnian, lehen aldiz, proiektu politikodun erakundetzea altxatuko da. Hala ere horrela sortutako egoera etnikoki bikoitza gertatuko da euskaldunentzak. Okasio bikaina izan bazuten ere, euskarak ez baitzuen lortu idatzizko estatusik bereganatzea erreinu napartarrean. Eta Europan XVgn mendetik aitzina erreinu absolutuen sormenarekin, Erdi Aroko europear erreinu etnikoen sarea, erasotarik aurkituko denean, Nafarroako erreinua suntsiturik galduko da. Errege absolutuen haundinahiak gerra etnikoa ekarriko baitu mendebaldeko Europa (Machiavelli, N., 1516). Finean, XVIIgn mendean, orduko estamentu eta klase burgesen artean hitzarmendutako estatu nazioaren proiektua burutuko da Ingalaterran (Hobbes, Th., 1651), eta XVIIIgn mendearen amaieran estatu-nazio burges « iraultzaile »ren « nazio » proiektua inposatuko da Frantzian, honela kolonizazioaren (barrenerako bezala kanpokorako) objetiboak nagusituko direlarik Europan.

Argi gelditu dadila aldaketa horiekin euskal kultura erreproduktzioarako beharrezko den autodefentsarik gabe eta alde guztietatik erasotua aurkituko dela. Gertakari horien ondorio euskal jendetzan ez da gehiagoz ikusbide kultural bakar bat emango: inoiz gogaiera eta ohikunde bat nagusituko da ; baina , ondoren, beste bat. Izan litekezke gainera kontrajarriak. Honela, bada, norabide kontrolatu gabeko jokabidearen legea nagusituko da euskaldunen artean.

2.3. Euskal zientzia etnikoaren ibilbideak

Euskal kulturaren erroak gogoratzen jarriarik Euskal Herriko lehen gizakiak eta beraien

kulturak ikastea ezinbesteko agertu zitzaizen euskal zientzilari batzuei. Honela sortuko dira euskal mundua ikertuko duten arkeologoak, paleontologoak, antropologoak, historialariak, hizkuntzariak, etabar, XIX eta XXgarren mendeetan. Geroztik oldeak dira hori egiten. Adibidez, 1983ko irailaren 30ean eta urriaren 2an Bordele eta Auch hirietan ospatu zen «Centenaire de la Société D'Anthropologie de Bordeaux et du Sud-Ouest» Kongresuaren karietara, « Pour une histoire critique et comparée de l'anthropologie basque : où en sommes-nous aujourd'hui ? » komunikazioa aurkeztu zuen, Joxemartin nire anaiak. Euskal antropologiaren historia egiteko zegoela, eta hori erremediatzeko plangintza bat zirriborrotu zuen, funtsean.

Bost ataletan agertu zuen gaurdainokoa euskal antropologiak egindako ibilbidea :

2.3.1. Lehen atalean, gogoeta labur eta aldiari aldiko zirkuntzantziei lotuko dokumentuetan ageri direnak aipatzen ditu (hots, liburuak, artikulak eta hitzaldiak edo komunikazioak). Alor hau komentatzekoan, gainera, garrantzia emanez ahozkoatasunaren emaitzak eta bildumak azpimarratzen ditu molde berezian. Izan ere, Euskal Herrian, proportzioan, lan handia egin izan dute antropologoek ahozko altxorra bildurik idatzita jartzen.

2.3.2. Bigarren atalean Euskal Herriarentzat interes antropologia daukaten Historiak ebaluatzen dira. Badira kalitatezko produktu historiografikoak. Horietarikoak ditugu : Francisque Michel « Le Pays Basque »(1857) ; Julien Vinsonen « Le folklore du Pays Basque »(1883) ; Jose Miel Barandiaranen « El hombre primitivo en el País Vasco » (1934) ; Philippe Veyrinen « Les basques » (1943) ; edo Julio Caro Barojaren « Los vascos » 1949. Obra hauek guztiek ekarpen partikularrak egiten dizkiote euskal historia antropologikoa ezagutzeko dokumentazioari.

2.3.3. Hirugarren atalean Bibliografia antropologikoa aipatzen ditu.

Ez daude gehiegi. Beste guztien gainera bat deigarria ageri da : Jon Bilbaok «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco – Eusko Bibliografía», 1970az gero deituraz argitara eman zuena. Hainbat tomo egiten ditu. Aldi berean aipamena merezi du ere 1975ean, Etniker aldizkariaren l.zb.an argitara eman zenak. Geroztik aipaturikoen gehiagarri izendatu beharko lirakeen beste bibliografia lan batzuk ere argitaratuak izan dira.

2.3.4. Laugarren atalean euskal antropologiari buruzko historiak leudeke. XIX eta XX garren.mendeetan lantxo zenbait argitaratu zen gaian. Horietarikoak dira J.Manterola ; J.Rhys ; P.M.Soraluze ; T.Aranzadi ; eta J.M.Barandiarenen zenbait ekarpen. Hogeigarren mendearen azken laurdenean datoz lan landuagoak : Hasteko, antropologoa ez den J.M. Lekuonak idatzitako « Ahozkoa Euskal Literatura » (1982). Eta ildo beretik baino antropologia alorreko den Joxemartin Apalategiren «Introducción a la Historia Crítica de la Producción Oral Popular Vasca»,(1982), 1983an Bartzelonako Anthropos argitaletxearen « Etnica » aldizkari antropologikoa, 17 eta 18 zb.etan atera ziren autore beraren lanak, Aipatu zenbaki horietan ere Euskal Herriko beste antropologo gazte batzuen lanak daude : Teresa Del Valle, Jesus Azkona eta Joxe Miguel Apaolaza eta Joanne Crawford Bamser-ek ildo bera jarraituz euren lantxoak argitaratu zituzten. Eta guztien gainera, 1987an, Bartzelonako Anthroposek argitaratu zuen « Introducción a la historia oral, kontzaharrak (cuentos viejos) » azpimarratuko dugu.

2.3.5.- Bosgarren atalean Euskal Herrian zeuden museo eta erakusketa etnografiko iraunkorren eraikuntzak izendatzen dira. Zerrendatzen hasita Donostian M.Soraluzek sortu zuena aipatzen da lehenik, eta ondotik Bilbon J.Larreack garai hartan zuzentzen zuena, eta Baionan W.Boisseelek sorturikoa datoz. Gehigarri bezala zera adierazten da, Julio Caro Barojak ahaleginak eta bi egin zituela Nafarroan bezala gaineatiko Euskal Herri osoan museo etnografikoen ekimenak ugaritzeko saioak moldatuz, baina anitzetan ustelak izan zirela. Emaiza gabeak edo gutxikoak, alegia.

Hala ere, atal honetan bada aipatzea merezi duen Kongresurik :1897an Donibane Lohizunen « la Tradition au Pays Basque » izenez garatu eta argitaraturik gelditu zaiguna, hasteko. Eta Joxemartin Apalategik berak, 1983an « Primer Ciclo de Antropología » (antropología e historia) izenez antolatu zuena ere aipagarria dugu. Jarraipena izan zuen 1984an. Geroztik Kongreso aberatsak eta ugariak izan dira euskal antropologiaren eremuan bereziki « hiri antropologiari » dagokionean. Bestalde, festa etnografikoak, musika eta dantza jaialdiak, ugariak izan dira azken hamarkadetan nonahiko Euskal Herrian. Museo etnografiko espezifikok ere ugaritu dira euskal geografiaren mapan. Baina historia zehatz bat egiteke daukagu.

2.3.6. Geroztik ere, zorionez, antropologiako ikerketa horiek ez dira itzaldtu. Aipagarriak deritzaizkigu, besteak beste, 1932an Berastegin sortu zen Jesus Altuna antropoarkeologo, paleoantropologo eta arkeozoologoaren lanak. Biologia Zientzietako lizentziako ikasketak Madrilgo Complutense unibertsitatean (1960). Alemaniako ikerketa zentroetan, Paleoantropologiako eta Arkeozoologiako jakintza espezializatuak bereganatu zituen. Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Arkeologia Saileko lehendakari eta *Munibe* aldizkariaren zuzendari izan da luzaz. 1960-1972 bitartean, antropologia indusketa askotan parte-hartu zuen, gehienbat Jose Miel Barandiaranek zuzenduta Euskal Herrian eta beste hainbat antropologok zuzenduta Euskal Herriaz Kantauriako lurretan. UNESCOren enkarguz, 1963an Sudango Nubia eskualdean arkeologia indusketak egiten aritu zen, Asuango urtegiak urperatuko zituen altxorrek salbatzeko ahaleginean. 1973tik aurrera, hainbat arkeologia indusketetan zuzendari izan da, Euskal Herrian batik bat. Haren liburu pare bat aipatzekotan : 1975an, *Lehen Euskal-Herria. Guía Ilustrada de Prehistoria Vasca. Guide Illustré de Prehistoire Basque*. Gero argitaletxea. Bilbo ; eta 1997an, *Seuil* argitaletxeak eskainitako « *L'art des cavernes en Pays Basque, les grottes d'Ekain et d'Altzarri* » rekin geldituko gara.

3. Euskal Nazioa

Gogora dezagun, XIX. mendearen bukaerako bezala XX. mendearen hasierako Euskal Herriko antropologoen euskararekin eta euskararekiko gizartearekin elkartutako kultura etnografiatzen *saiatu zirela*. *Hasieratik*, Telesforo de Aranzadi (1860-1945) hortaratu zen. Haren ikerketa eta idazlanak orduko euskal etnografiak zerakutsan giro gartsu eta gorenaren lekuko esankorrek dira. Adibide bat: Pariseko Nazioarteko Antropologia Elkartek 1889. urtean Telesforo de Aranzadik idatziriko *El pueblo euskalduna. Estudio de antropología* liburua saritu zuen. 1917an, Bartzelonako Unibertsitateak abiarazi zuen Antropologia Katedra Telesforo de Aranzadik atera zuen. Ondotik Joxemiel Barandiaranen (1889-1991) ikerlanak eta idatziak heldu ziren. Gaztaroan, arkeologia, folklorea, museogintza eta etnografia elkarrekin

landu zituen. Baina, adinean aurrera egin ahala, Euskal Etnografia Eskola izendaturikoa sortuz, etnografiagintzan zeharo murgildu zen. Baina aldiz, 1893an, Sabin Arana Goirik « Comución » sortzean, orduarteko euskal etniaren berreskuratze prozesuari berrikuntza larri bat ekarri zion Euskal Nazioaren proiektua bultzatuz.. Guzti honek, bigarren karlistadaren amaieran, espainiar erregimen garaileak, euskal etniarentzat nahitaezko iraupen bermetzat ematen ziren Foruak deuseztatzean (1876 - III - 13) euskaldunen artean sortutako ondoeza eta urduritasuna dauzka gibelean. Eta mutazio adierazgarria zekarren euskalgintzarentzat.

3.1. Euskal identite etnikoaren ikerleen arteko antsiak

Euskal identitateren defenditzaile suhar izanik, hau galzorian sentitu eta, euren buruarekin maniobra ikusgarrietan ibiliak diren hiru euskal pertsonaiaren jokabideak aurkeztuko ditugu atalxo honetan. Oro har, hiruek elkarrekin zerbait komuna daukatela, hots, ibilbide luzean defenditutako objetiboak bat-batean itzali egiten zaizkiela egoera politikoen eraginez da. Orduan, noragabeko puntuan, jarrera berri jakingarriak hartzen ikusten ditugu. Banan- banan aipatzera igaroko gara : Sabin Arana Goiri, J.M.Barandiaran eta Julio Caro Baroja.

3.1.1. Gurasoenerabakiak bitarteko ume aroa Iparraldean iheslari bezala egitera behartuta aurkitu zen Sabin Arana Goiri. Euskal ethnosaren iraupenerako nahitaezko kontsideratzen ziren Foruak galduak zirela eta, etsipenean erori orde, haiek bermatzeko proiektu politiko berri baten bila jarri beharraz konturaturik nazioaren planteamendua aldarrikatuz erantzuten du. Berehala, Bilbon bere zirkuluak sortzen ditu proiektu politiko berriaren aldeko agitazioa erabiliz euskal jendea nazio ikuspegiara erakartzeko asmoz. Baina, Espainiak Euskal Herrian dauken botere politikoa, berehala erreparatzen du Sabinen pertsonaian, eta zutik dauden legeen izenean, jujeak eta zigorrak erabiliz, haren planteamenduan etsiaraztzen saiatuko dira. Sabinekin ukanak dituen hastapeneko garaipen politikoak jarraipena behar eta, beti areago urrats emanez espainiar botere politikoa ihardestean, kastiguaren gainean kastigu jasoko du, eta osasun arazoak helduko zaizkio. Giro zail horretan, haren buruan « La liga de vascos españolistas » (1902) proiektua umotuko da. Zertan zetzan ? Antonio de Magureguik 1902-8-8an, Engrazio Aranzadiri idatzitako gutunean honela ageri du : « Habiéndose formado una junta encargada de recoger las adhesiones o votos de confianza que D.Sabino de Arana y Goiri, solicita para la fundación de una vasta liga o asociación que uniendo a nabarros, guipuzkoanos, alaveses y vizcainos se consagre a recabar de los poderes de Madrid, por vías legales la mayor felicidad a que puede aspirar nuestro País, dentro de la Unidad del Estado Español, se ha creído esta Junta en el deber de nombrar a Ud. director de la Provincia de Gipuzkoa, pues dado su patriotismo vasco y sus conocimientos en esa región nadie mejor que Ud. para el desempeño del referido cargo» (Elizondo M., 1981, 454) Orain bat-batean Sabinekin euskal nazio proiektua espainiar erregionalismo konstituzionalistan eraldatzeko zer gertatu zaio ? Ezbairik gabe eritasunaren pizua dago. Baina, garaiko bere jarraitzaile sutsuenetariko batek egiten duen gogoeta kontuan hartzekoa da. Arri Andiagak, 1903-8-22an « Sobre la evolución española » izenez idazten duen artikuluan, honela argudiatzen du Sabinen metamorfosia : «.. Cuáles son los futuros propósitos del Partido nacionalista ? Lanzarse a la guerra, como único medio, en demanda del triunfo : pero, para ello, necesitaba dos cosas : 1) la Propagación de la doctrina y 2) en consecuencia, formación de ejército. Propaganda de doctrina. Más de diez años que se la cultiva, y qué prosélitos ha adquirido ? Ocho mil, diez

mil, quince mil : total, una miseria. Es evidente que, al paso que vamos, se habrían menester treinta, cuarenta, cien o más años para lograr que, así como la mayoría del País llegó en un tiempo a ser carlista, llegase a ser nacionalista. Y dada la invasión que de día en día se acentúa, habría ya vascos dentro de cien años?... (Elizondo, M., 1981, 477-478) Egiteko gelditzen den eginbeharraren aitzinean etsipenaren argudioa nagusitzen da. Azpimarragarria da ere barren inmigrazio oldeentzat egiten den inbasio aipamena. Euskaldunek botererik ez zuten garaietan « inmigratio oldeak » batabestearen atzetik zetozenean euskal gizarteak haiek integratzeko zeukan « erakunde » bideratzaileen falta nabarmenduko da.

3.1.2. Ikerlari zientifiko bezala lehen indusketa eta landa lanak Hegoaldean zehar ziurtasun eta heldutasun haundia erakutsiz eraman ondoren, Francok 1936an Espainian abiatutako matxinadatik eskapo Iparraldera etorri zen J.M.Barandiaran, eta garai haietan frantses autoritate politiko eta erreligiosoetatik jasotako erasoaldiak gainditurik, 1946tik aitzina, Sarako « Bidartea » bere etxetik hainbat proiektu zientifiko kudeatu zituen. Horien artetik nabarmentzekoak dira, Iparraldean zehar egindako indusketa eta landa lanak, eta haiek kudeatzeko sortutako « Institut Basque de Recherches » (1946-1951) eta *Ikuska* aldizkaria, zeinetan talde ikerketako emaitzak argitaratuko baitziren. Baita ere, 1947an Baionan sortu zituen « Société Internationale des Etudes Basques » , eta *Eusko-Jakintza* izeneko aldizkariarek. 1953an Ataunera itzuliko da « Sara » bere etxe berrian hil arteko errotzeko. Hemezortzi urteko ausentziaren ondoren Ataungo herri giroan aurkitu zuenak hain itolarri haundia sortu behar izan zion non harek praktikatzan zuen antropologia jakintzaren eginkizunetariko bat aurrerantzean abandonatzea erabaki baitzuen. Zer izan zen hori ? Gogora dezagun jakintza horri C.Levi-Straussek aitortzen dion eginkizun bikoitza zer den. Claude Lévi-Straussen arabera(1962/2014,.159-160), « bizitza soziala, gizon-emakumeen arteko harremanak, ez dira espirituan bilakatzen diren joku kontzeptualen proiektzioak, aitzitik emaitza bat da. Eta ondorioz, eskema kontzeptualak agintzen dituela dio praktika horiek, eta hain zuzen hau da errealitate diskretuen forma pean etnologoak ikertzen dituenak, denboran eta espazioan lokalizatuz eta bizitza generoen eta zibilizazio formen distintiboz, hala ere ez dira konfunditzen praxiarekin zeinak gizon-emakumeen jakintzentzat orokortasun funtsezkoa egiten baitu. » Eta puntu horretan, berehala beste kontsiderazio hau gehitzen du, etnologo naizenez, gainegituren teoriaren ikasketa desiro dut, « historiarentzat erreserbatuz – demografia, teknologia, gerografia historikoa eta etnografia lagun izanik, -propioki azpiegitura direnak ikastea, gure egiteko zuzena ez delako, etnologia lehenik eta behin psikologia denez ». Eta « La pensée sauvage »(1962), bere obran are, beste gogoeta-bereizketa hau egiten du. Identitate totemikoa (gure kasuan identitate etnikoa izan daitekena) bi prozesuren baitan mugitzen da : produkzioa eta erreprodukzioan alegia. Hori ulertzeko edozer giza-gizarte errealitatearen garapenean bi plano bereiztu behar ditugula dio : 1) Identitate (haren kasuan totemikoa) batek bere eraikuntza propioan akzio sistema arau-eragilea jarraitzen duela, dago batetik ;2) Eta identitate (totemiko) horretako aktoreak aldirako pentsamendu gidari bezala eratzen duen sistema kontzeptualak dauzken printzipio eragileak jarraitzen dituela, dago bestetik. Identitatearen bi osagai hauek elkarrekin doatzenean, akzioaren bi planoak bat eginik baleuden agertzen zaizkio kanpotiko soegileari, hots, ibilbidea egiten ari den aktorea (banakoa edo soziala) gozoan, orekan balebilen, baina beste hainbat egoeratan hausturen erdian aurkituko denean, haren sistema kontzeptuala lausotua, ilundua, inbaditua izan balitzen agertuko zaio, baina horrek ez du esanahai, besterik gabe, identitatearen akzio sistema

birrindu eta inolako operazionalitate gabe bihurtu denik. Arrazoa ondoko honetan aurkitu behar da : Identitate baten akzio sistemak, funtsean oharkabe kolektiboak janariturik eragiten duela, gizon-emakumeen imaginarioari lotutako funtzioak esleitzen dituelarik, alegia. Eta hau Carl Gustav Jungen (1913/1996) arabera, psikeak bere baitan dauken oinarria da, hots, toki eta garai guztietan berdina izanik, nongurako eta aldaezina dena. Akzio sistemaren bi atalak batera ari direnean, hots, aktore indibidualizatu batzuk euren baitan itsatsirik daramaten identitate etniko baten akzio sistema eta, aktore direnez aldian aldiko eraikitzen duten sistema kontzeptualarekin bat eginik ari direnean, indar pilaketa errendimendu handienarekin garatuko baita identitate etniko horrentzat. Baina hala ez doanean, hots, aktore horietariko batzuen sistema kontzeptuala identitate etnikoaren akzio sistematik apartatzen denean, oharkabe kolektikoaren azpian egoenez, indar pilaketaren errendimendua jeitsi egingo da, baina hala eta guztiz akzioa ez da gelditzen eta berpiztu daitekena da.

Eta J.M. Barandiaran horrekin ados zegoen, nik neuk, 1962an, Ataungo Jentil Baratzara indusketa saio bat egitera goatzala C.Levi-Straussen aipamen hortaz. Zuzenean galdetzean, hori horrela zela esan baitzidan, eta bera ere gazteago zenean saitua zela antropologiaren bi eginkizuna horiek aldi berean eramaten baina, utzi behar izan zuela « etnologia », praktikatzeak denbora eta ahalegin eskerga eskatzen zuelako. Bi bizi alditan egiteko hainbat lan zegoela, alegia. Eta euskal ahozkotasan transmisioa etetera zoala sentiturik, dilemaren aitzinean, « etnografiari » oro ematea erabaki zuela.

Berriro zenbait unibertsitate eta erakundeetatik gonbidapenak jaso zituen eurekin lan egiteko, baina etxetik gertu egon nahi zuela-eta, Nafarroako Unibertsitatearen «Euskal Etnologia Catedra» onartu zuen. Horren inguruan ETNIKER taldea sortu zuen, eta bere eginkizun nagusia landa-lanak egitea izan zen. Nafarroatik Euskal Herri osora hedatu zituen. Eta «Euskal Herriko Atlas Etnografikoa» gorpuzten jardun zen horretarako sortu eta kudeatu zituen ikerketa taldeekin. 1976an Eusko Ikaskuntza berpiztu beharra azaldu zuten eta Batzorde Iraunkorreko kideek aho batez izendatu zuten lehendakari.

3.1.3. Hirugarren protagonista, 1914an Madilen jaio zen Julio Caro Baroja antropologoa, etnologoa, historiagilea, linguista, folkorista eta saiakera-idazlea dugu. Bere haunditasuna euskal letretan **historia-etnologikoa** praktikatzetik dator kio beste edozerren gainetik. C.Lévi-Staussek (1962), etnologiarik egotzi zion funtzio interpretatibo hura maisuki aplikatu baitzuen bere lanetan zehar. Garaian garaiko izanez historian zehar sortutako sistema teoriko desberdinen ezagutzailerik eta manejatzaile bikaina eta iaioa izatetik, alegia. Gainera historiaren munduan murgiltzean historia espezifikoenak, konkretuenak historia unibertsalaren ardatzean lotzen jakin zuen.

Inoiz inon **oharkiro** izan den euskal identitate etnikoaren ikertzaile etnologiko aberatsena da Don Julio. Identitate etniko hori, ikerlari lez, nola konfiguratu zuen eta zer ibilbide historiko, etnografiko eta etnologiko jarraituz agertzen zuen gogoratuz hasiko dugu atal hau. Xede-helburu horretarako jokabidea euskal kulturaren **etnohistoria** eraikiaz abiatu zuen. Identitate etnikoak historia baitu oinarritzeko eta euskal identitate etnikoaren historia milaka urtetakoa da. Eta ikuspegi historikoak zer du berezirik ? Hasteko eta behin, identitate etnikoa iraunkortasunean bada ere beti aldatzen doala agertzen digula. Bizitza, berez, mugikor izanik, identitate etnikoaren bizitzan ere beti **erreprodukzioa** ageri zaigu. Baina erreprodukzioak, noizbehinka, sortu daitezkeen elementu aldatzaile berriengatik, barruko liskarregatik, kanpoko inbasioengatik, katastrofe naturelengatik etabar **hausturak** ere paira

dezazke haren bilakaeran. Industrializazio eta postindustrializazio aroan haustura horietako batetan sartu zen euskal identitate etnikoa. Don Julio Caro Baroja berberak haustura horiek euskal historian zehar agerian zeudela konfirmatuak zizkigun, euskal kulturaren bilakaera multisekularrean HAMAIIKA ziklo bereizti baitzituen. (Los vascos, 1949 /1971, 376-385 or.) **Baina industrializazioaz geroko Euskal Herrian euskal identitate etnikoaren akabera ez ote zegoen adieraztera heldu zen.** Hori gertatu bazitzaion, zer etzuen ulertu edo ez ongi ulertu? Identitate etnikoa, bera sortu eta bilakarazten duen lurraldearekin sinbiosian jarduten denez, hainbatean, haustura haundien garaietan ere, beti erreprodukziora itzultzeko ahalmena gordetzen ahal duela, baldin eta bere biztanleek horretarako **borondatea** aktibatzen badute, argi baitago. Azken funtsean, egoerarik ertzenekoan ere, erreprodukziorako bidea hartzean, biztanleen gogoaren baitan gelditzen baita norabidea egiteko modua, hil ala biziko egoera ertzekoan ere barren aukera egiteko beharrezkoa den ahalmena sekulan ez baita galtzen. Eta hori are argiago da horrela, dakigunean lurralde propioan itsatsitako biztanleri batek askatasun dastamena noizbait eginga izan duela, zeren horrela denean inongo areriok ezin izango baitu biztanleri horren borondate hori betirako makurtu. Kurt Lewinek (1972) aditzera eman zuen bezala, argi baitago « gizon-emakumeen portaeretan oinarri sozioespaziala » (behavior setting) funtsezko faktore eragilea dela. Gizabanako eta taldeen portaerak eta bizi diren ingurumenaren aukerak ala hersturak ezinbestez harremandurik baidaude euren artean.

Don Julio Caro Barojak, bere sistema kontzeptualean, pesimismoz beterikoan, arazo hau etzuen positiboan ordenatzea lortu, ikustera ailegatu baldin bazen ere. Gogora dezagun iada euskaldunen ibilbide historikoaz « Los vascos » (1949 / 1971) liburuan konfiguraturik ageri den « alterazio etnikoaren » tesia: « La relación del vasco, en el espacio y a través del tiempo, con diferentes objetos, con diferentes elementos significativos naturales (montes, ríos, mares, animales, plantas, minerales...) se ha visto que cambiaba según establecía relaciones distintas con distintas unidades sociales, amigas o enemigas, poseedoras de ciertos conocimientos u otros derivados de aquéllos. Conviene que ahora volvamos a revisar la naturaleza de estas relaciones en sí mismas, y también las de los vascos entre ellos, para hacer ver qué clase de vínculos se establecieron a lo largo de la Historia que influyeron en la constitución que hoy presentan y en sus ideas de toda índole »(194 or.) Urrezkoa da aipamen hau gu geu baieztatzen ari garen tesiarako. Euskaldunaren historian ehuntzen joan izan diren harreman desberdinetaz, eta faktore desberdinetaz hitzegiten digu. Primeran! Baina industrializazio-postindustrializazio aroa aztertzean, Don Julio Caro Barojaren baitan ahulezia intelektuala nabarmetzen da. Ondoren aipatuko ditugun haren beste aipamen hauetan, bere gogoa, erreprodukzioaren ezinezkoan gotortzen ikusten baitugu aldaketa industrialaren ondoko euskal identitate etnikoaren bermoldaketa ahalari buruzko balorazio orduan : « No quisiera terminar este capítulo sin hacer notar al lector otra vez cómo la industrialización, iniciada con las explotaciones del hierro y de la pesca, ha sido causa de la gran alteración étnica del país, expresada por el aumento demográfico de las zonas siderúrgicas de Guipúzcoa y Vizcaya primero y de las industrias de otro carácter después... Si se compara la población total del país con la que pueda hoy día tener cierto interés etnológico, histórico o cultural, se observa pronto que esta última supone una cifra en realidad ya bastante pequeña. La natalidad en tierra vasca no permitiría un crecimiento como el existente, debido ante todo a la absorción continua de gentes venidas del interior de la península, en que aquélla es mayor y donde hay poca industria. Vasconia es más una tierra consumidora que productora de seres humanos, en el cuadro general de los pueblos peninsulares » (194 or.) Finean, « El laberinto vasco »(1984)

haren liburuan bururaino eramango du aipaturiko gogoeta ezkor hori. Honela adierazten du : « La cuestión es saber, en relación con lo que se considera o es vasco, dónde, cómo y cuándo se pueden encontrar estas notas de igualdad, repetición e invariabilidad. (120 or.) Eta hariaz kanpoko azalpen baten jarraian, ondoko galdera hau egiten dio bere buruari : « Entonces usted no cree que haya una « identidad vasca », o cualquier otra clase de caracterización de lo vasco en el tiempo y en el espacio ? (121 or.) Eta aurreraxago ondoko gisan erantzuten du : « Todos somos unos e idénticos, pero acerca de esta unidad e identidad existen discrepancias de detalle, empezando por la lengua. Con ella frente a la fragmentación dialectal y subdialectal « real », se quiere hacer la unificación : el « **batua** ». Frente a la pérdida se pretende llevar a cabo la recuperación. Esto supone todo un programa político. Mejor dicho varios programas. Unos lentos, evolutivos, persuasivos. Otros rápidos y coercitivos. En todo caso la cuestión de la identidad-unidad » está en juego. También la de la « cotidianidad (122 or.)»

Julio Caro Barojari Akilesen taloia aurkituko diogu, eta puntu honi loturik datza. Ez baitzuen ulertu inmigratio prozesuen ondorio Euskal Herrian « inbaditutako » lurraldeetan, identitate etnikoak erakuts zezakeen erresistentzia, hots, itxuraz faktore-elementu birrinduak ematen ziren tokietan nola bersortu zitekeen identitate etnikoaren iraupen ildo. Zer elementu ezdeusek egin dute bere betiko lurrian itxuraz galduta dagoen identitate etnikoaren bersortzea? Garbi dagoena da, berriz abian jartzen ahal dela itxuraz agortuta dagoena. Historia egitean, eginkizun hori, gehiago irakurtzekoa eta gutxiago interpretatzekoa, ala eta alderantzizkoa, izan lieteke. Dilema honetatik ihes egin nahi duen historiagileak berriz bi erataraz egiten ahal du ihes : azpitik igaroaz, eta horrela egiten bada, informazio bilketa unean taldeak kontsideratzetik norbanakoak jomugan jartzera igarotzen da ikerlea, eta hauekin jardutean euren izaera eta historia pertsonaletan agertzen diren motibazioak kontsideratzera heldzen da, psikologiak eta fisiologiak osatzen duten infrahistorikoaren eremua landuz. Edo gainetik igaroaz ihes egiten ahal da, eta horrela denean izaki antolatuen bilakaera, molde orokorraren zein biologiko, geologiko eta kosmologikoaren pean adierazten da.

3.2. Nazioaren orduan ere etnikoa iraunkor gerta daiteke

XVII. mendeaz gero nazio proiektuan bizi den Ingalaterran mutazio kultural eta sozialei buruz aurkikuntza harrigarriak egin zituzten Michael Young eta Peter Willmott (1957/1983) soziologo-antropologoek XXgn mendearan erdian egindako ikerketa berritzaile batean. Munduko bigarren gerratearen ondotik sortutako Londresko « auzo berri » bat eta garai berean perferian eraikitako « auzo-zite berri » bat aztertuz ahaidego harremanen erreproduktioari dagokionean konparatzea okurritu zitzaion. Zertarako ? Garaiko soziologo gehienek baieztatzen zutelako ziotate industrial edo postindustrialetan « **familia hedatua** » desagertzehar, mehartua eta tipitua, galzorian zola **gizabanakoen** askatasun indibidualen faboretan. Hau hala ote zen jakitea zuten helburu. Azterketarako, 1955ean, Bethnal Green Londreseko ekialdean 54000 bizilagun zituen « auzo-zite berria », eta gehienbat « langile » munduko jendez osaturikoa, hautatu zuten. Eta periferiako « auzo-zite berrien » artetik berriz berri-emanleen anonimatoa gordetzeko helburuarekin « Greenleigh » itxurazko izenez izendatu zutena hautatu zuten.

Emaitzak harrigarriak izan ziren : soziologoaren iritzien aurka, Londresko ziotatearen Bethnal Green « auzo-zite berrian » erreproduktio jarraituan hedatzen zola « familia hedatua » ikusi baitzuten, hots, **ahaidegoaren arautze erreproduktioa** arras operatiboa

zela, eta ahaidegoren akzio sistemak aktibaturik jarraitzen zuela, itxuraz horretarako baldintza guztiak galduak zeudenean ere. Baita ere agertu zitzaizen, « auzo-zite berrian » bizi zirenen arteko leialtasun giroa etzitzaiola zor urbanismoari, aitzitik pertsona haiek lotzen zituen ahaidego harremanei. Hala ere periferiako « auzo-zite berrian » bizi zirenen artean baziren Bethnal Green auzotik joandako batzuk eta horien artean ahaidego legea bizirik bazegoenean ere gaineatiko jendearen artean (inmigrazio jatorrizkoan, alegia) etzen horrenik proportzio berdinean ageri. Geroztik Londresko beste auzo-zite berrietan horrek guztiak nola funtzionatzen duen jakin nahirik ikerketak eraman direnean Benthall Greenekoak erakusti zuena behin eta berriz konfirmatu egin da.

Don Julio Caro Barojak etzuen ulertu euskal identitate etnikoak bere lurraldean, nahiz « inbasio politiko » anker bat pairatzen ari, irauteko eta berpizteko ahalmena izan zezakeenik. Bere lurraldean gutxiengotarik gertatzen den identitate etnikoa, edonongoa, erreserban daraman **oharkabe kolektiboari** esker, beti trantze horretatik ateratzeko lain izango dela identitate etnikoaren elementu material eta inmaterialenak birrinduak suertatzen ez direno, alegia. Zer elementu diren elementu inmaterial horiek? Don Juliok hain ongi aipatu zituenak, hain zuzen : mundu mitikoa (kontakizun mitologioetan bezala kontu zaharretan ageri dena,); mundu errituala (uda, udaberri, udazken eta neguko sasoiatan urtez urte errepikatzen dena), pastoral, maskarada, tobera-munstra, ihauteri, eta jaietan, oro har, antzesten jarraitzen diren errepresentazio herritarrak. ; arte plastikoak, adierazgarri propiorik ageri duten kolore eta marrazkien erritmo simetrikokoan (besteak beste hor dago euskal heraldika propioaren produkzio aberatsa) jarduten dutenak; musika, poesia, dantza, antzerkia eta kirola herritarrak. Eta beste ezeren gainera, gizabanakoa harremanez egindako animalia denez, horretarako elementurik baliokoena hizkuntza duela gogoratuko dugu. Euskal identitate etnikoaren kasuan gizabanakoen multzo horrek milaka urtez baliatu izan duen euskara daukagu. Gutxitua eta zanpatua egon bada ere beti bizirik dagoena. Honi guztiari autoritate itzala emateko, beste behin ere, C.Levi-Straussen (1964-1971) iritzia ekarriko dut honera : mitoa eta musika kultur forma puruak dira (pintura ez bezala, zeinak naturatik jasotzen baititu bere baliabideak), esaten digu, eta zentzua produkzitzen dute gizabanakoen bizitza afektiboan horrela gizartean errotuz. Giza eta gizarte zientzien misterio goren musikan datzala ere, adierazten du. Aitortu zuenez, musikaren bidez bere baitan haurtzarotik ohargabeen zaramana itsartu zitzaionean historia-aurrreko gizarteetara ailegatzeko elementuak aurkitu zituen.

Identitate etnikoaren **oharkabe kolektiboa** itxuraz izozturik gertatzen denean ere, eta hala hamarkada, edo ehunkada batzuetan baztertua, ixildua eta ahaztua agerita ere, giro arerikorra pasatzean, identitate etnikoaren enborreko bizitzara itzultzeko energia beti berpizten ahalko da, aldian aldiko errekerimenduetara kontzeptualki egokitutako biztanleak emango diren hainean. Hori bai, erreproduzio aro horretan eraldaketa eman daiteke : identitate etnikoa, **identitate nazionalean** bilakatuz, besteak beste. Horrela denean, identitate etniko berdina duen gizabanakoen multzoak euren xede-helburuak betetzekoan, orain, lehen ez bezala dauzkan arazoan aitzinean, berboteretze prozesu bat kontzebitzen du, eta aldi berriko beharren arabera erakunde egokituena bila jartzen da. Psikologo sozialek bersozializazio prozesua deitzen dute hori, zeren horrelakoetan gizabanakoa bere rola berdefinitzera behartuta aurkitzen baita. Egoera horretan gizabanakoen multzoak norbanako bakoitzarentzat egokitze forma berria lortu nahi izaten du. Eta norbanakoa bersozializazio prozesu hori garatzeko lain ez bada, orduan, bere gizabanakoen multzo hori uztera behartuta aurkituko da. Ahalegin hori eta horretarako idekitako prozesua, bere izaeraz nabarmen politikoak gertatu ohi dira. Honen

adibide adierazgarriena « judutarrena » da. Bi mila urtez euren lurraldetik kanpo bortxaz emanak eta maltratuz-maltratu erabiliak izanik ere, euren jatorrizko lurraldera itzultzea eta identitate nazionala proiektatzea lortu baitzuten

Bestalde, munduan zehar gutxiengoak ematen dira. Hala ere, gutxiengoak eta gutxiengoak daude. Denak ez dira berdinak. Batetik, gurasoak gehiengo ziren lurraldean erroturik badaude ere, gutxiengotuta agertzen direnak daude. Bizi diren lurraldea euren bada ere, lurralde hori arrotzen aginte pean erortzean gutxiengotuak izan direnak, alegia. Arestian aipatua dugunez, arrazoi desberdinengatik eman daiteke identitate etniko bat bere lurraldean arrotzen menpeko aginte pean erortzea. Egoera horrelakoa bilakatzen denean, identitate etnikoa bergehiengotzeko gelditzen zaien irtenbide bakarra, nagusiki sortzaile izango den bersozializazio prozesu bat idekitzea izango dute. Prozesu horretan sartzean lurraldea eta ondarea gurutzatuko direnez, ondorioz, bersozializazio multifaktorial sortzailearekin topatuko dira.

Bestetik, euren lurraldea « motu propioz » utzirik, « inmigrazio » jokabideari jarraiki, beste batzuren lurraldera etortzeagatik, gutxiengotuak izan direnak daude. Hauentzat ez da arazoa jatorrizko ondarea berreskuratzea, zeren urruntasun espazialean bada ere, osotasunean emana baitzaie, eta beti funtzionatzen ari baita euren jatorrizko lurraldean. Inmigraziozko gutxiengo hauen erronka besteren lurraldean erroak botatzea eta portaera bersozializatzailea garatuz gizarte hartzaile egokitzea da. Inmigrazioz topatu duten identitate etnikoaren lurraldean itsatsi ala eta euren jatorrizko lurraldetik dakartenari eustsiz beren baitan gotortu, izan dezakete dilema. Baina horrelako kasuetan soziologoek edo antropologoek eginak dituzten ikerketetan beti lege bera jarraitzen dela ohartzen gara : lehen belaunaldikoek, inmigrazioa minez eta bortxaz egin behar izaten dutenez, utzi behar izan duten lurraldeari atxikiz, gogoz bederen hari loturik bizitzen jarraitzea aukeratu ohi dute nagusiki. Psikologo sozialek oroitzapenaren aldia deitzen diote prozesu berri honi, zeren horrelakoan inmigraziozko gutxiengotuek jatorrizko gizabanakoen multzotik at aurkitzean, jatorriko gizabanakoen multzoaren barrenean ukandako bizikizunen oroitzapenean gotortzea hautatzen baitute. Honela denean, euren beti jatorrizko lurraldekoak izango dira, nahiz orain fisikoki handik urrun bizi. Bigarren belaunaldikoak, gurasoen lurraldekoak bezain sortu diren lurraldekoak sentitzen dira, hala ere. Horrela hauek bikoiztasunean mugituko dira aukerak egin behar dituzten bakoitzean. Finean, hirugarren belaunaldikoak sortu diren lurraldekoak eta ez beste inongoak kontsideratzeraz ailegatzen dira masiboki .

Inmigraziozko gutxiengotuek « besteren lurraldean » une batez gehiengo bilakatzea lortzen badute ere, ez du esanahi, une batezko gehiengo izatea lortze hutsarengatik, okupatu duten lurraldeko identitate etnikoa osotzen duen gizabanako multzoaren ondarea eta izaera propioak neutralizatzeko lain izango direnik. Horrelako egoera sortzen denean, inmigraziozko gutxiengotuen eta lurralde propioan gutxiengotuta gertatzen direnen artean gatazka piztu eta borrokan sartzeko aukera guztiak pilatuko direla baizik. Eta horretan sartzen badira, dimentsio berri batekin aurkituko gara : gizabanako harremanen natura neurri sozio-politikoekin nahastu dela, alegia. Erabakiak hartzeko lantasa, erabakiak hartuz gero hartutakoak aurrera eramateko instrumentala edo botere bitarteko jabetza, etabar, xede eta eskari bezala plazaraturik lehian jarriko direla. Baina, borroka aldi horrek, horrela planteatzean, euren lurralde propioan gutxiengoturik direnen alde itzultzeko aukera guztiak dauzka, baldin eta identitate etnikoa borrokaz erreproduktitzean identitate nazionalean eraldatzeko lain izaten badira. Gizadiaren azken berrehun urte hauetako historian horren lekuko ugari daukagu.

4. Ondorio idekiak

Ikerketa zientifiko baten ondorioak beti dira erlatiboak. Gaur argia dena, bihar ilunean sar baidaiteke berriro, froga berriak halakoak direlako, baina alderantzizkoa ere gertatu daiteke. Hala ikusi ala ez, euskal materia etniko-nazionala zeharkatzen duten dimentsioengatik bezala euskal kulturak agertzen duen iraunkortasun historioarengatik edozein ikerlerentzat perla preziatua da. Baina nekosoa eta zaila ere bada zentzuzko gisan adierazteko. Etorkzun hurbilean gai honen kariatara egin beharko diren ikerketen egitaraua proposatuz amaituko dut: Ethnosa eta Nazioa ez dira euren artean nahitaez elkarrekiko baztertzaileak. Bakoitza autosufizientea izanik ere, bestearekin konpontzen ahal baita. Nola bata hala bestea hiru ardatz rotatiboz egituraturik daude: Horietarik lehenena, ohituazko eta ahozkotasunezko ondaretik elikatuz giza-gizartean arauen eraikuntza beti berritua progresiboki jorratzeko bidea da. Pertsonak eta pertsonalitateak begiztatu eta eurekin harremanak izatean, eta orduan bakarrik euren formez, funtzioez eta portaerz ohartzen baigara. Bigarrena, etnozentrismo kognoszitibo-afektibotik deszentrazioarako bidean, aldian aldiko egoeratik sortzen diren baloreen elkartze ordenatua proposatzeko da. Hirugarrena, gizabanakoa bezala gizakolektiboa armonizatuz guztientzat goi balore den elkarkidetasuna gizartean finkatzeko da.

Erreferentziak

- Allières, Jacques. 1977. *Les basques*. Paris: PUF.
- Altuna, Jesus. 1975. *Lehen Euskal-Herria. Guía Ilustrada de Prehistoria Vasca. Guide Illustré de Prehistoire Basque*. Bilbo: Gero.
- Altuna, Jesus. 1997. *L'art des cavernes en Pays Basque.-Ekain eta Altxerri*. Paris: Seuil.
- Apalategi, Joxemartin. 1981. Introducción a la historia crítica de la producción oral popular vasca. *Ethnica, revista de antropología* 17. 5-50.
- Apalategi, Joxemartin. 1982. Introducción a la historia crítica de la producción oral popular vasca. *Ethnica, revista de antropología* 18. 7-26.
- Apalategi, Joxemartin. 1987. *Introducción a la historia oral a través de los kontuzaharrak (cuentos viejos) de la comunidad gipuzkoan de Ataun*. Bartzelona: Anthropos.
- Arana Goiri, Sabin. 1965. *Obras completas de Arana-Goiritar Sabin*. Buenos Aires: Editorial « Sabindar-Batza ».
- Aranzadi, Telesforo. 1889. *El pueblo euskalduna. Estudio de antropología*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bilbao, Jon. 1970. *Bibliografía Cuerpo C*, Enciclopedia general ilustrada del País Vasco, Bilbao ; Eusko Bibliographia. 10 volumes, 1970–1981. ; Eusko Bibliographia (1976-1980). 3 volumes, 1985. ; Eusko Bibliographia 1981-1985. 1996.
- Caro Baroja, Julio. 1949. *Los vascos*. Madril: Istmo.
- Caro Baroja, Julio. 1985. *El laberinto vasco*. Donostia: Txertoa.
- Elizondo, Mauro. 1981. *Sabino Arana padre de las nacionalidades*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Hobbes, Thomas. 1651. *Léviathan*, C.B. Macpherson, Pelican Classics, Londres: Penguin Books.
- Jung, Carl Gustave. 1913/1996. *Psychologie de l'inconscient*. Paris: LGF.
- Kolektiboa, 1982 [1897]. *La tradition au Pays Basque*. Baiona: Elkar.
- Lafon, Robert. 1994 [1944]. *Le système du verbe basque au XVIe siècle*. Baiona: Elkar.
- Lévi-Straus, Claude. 1990 [1962]. *La Pensée sauvage*. Paris: Plon.
- Lévi-Strauss, Claude. 1964-1971. *Mythologiques*. Paris: Plon.
- Lewin, Kurt. 1972. *Psychologie dynamique*. Paris, PUF.
- Machiavelli, Niccolò. 1513/1532. *Il Principe*, Fiorenza. [2007ko E. Noveloren zuzendaritzapeko bertsioa, Barbera].
- Michel, Francisque. 1981 [1883]. *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*. Baiona: Elkar.
- Rouche, Michel. 1979. *L'Aquitaine des Wisigoths aux Arabes, 418-781 : naissance d'une nation*.

Paris: Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, J. Touzot.

Young, Michael & Peter Wilmott. 1957. *Family and Kinship in East London*. Londres: Routledge and Kegan.

Young, Michael & Peter Wilmott. 1983. *Le village dans la ville*. Paris: Centre Georges Pompidou.

Veyrin, Philippe. 1975 [1943]. *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse-Navarre, leur histoire et leurs traditions*. Paris: Arthaud.

Vinson, Julien. 1883. *Le folk-lore du pays basque*. Paris: Maisonneuve.